

KOSTALDEKO BIODIBERTSITATEA BIODIVERSIDAD COSTERA

JAIZKIBEL-ULIA

*Ezagutuz maitatu.
Maitatuz babestu.
Conocer para amar.
amar para conservar.*



HITZAURREA.

Bizitza ez da posible ozeanorik gabe. Haren tenperaturak, kimikak, korronteek eta bizitzak Lurra gizateriarentzat bizitzeko egokia izatea eragiten duten sistemak mugitzen dituzte.

Itsas biodibertsitatea mirari hori posible egiten duten altxor handietako bat da, eta ezinbestekoa da hura ezagutzea merezi duen bezala errespetatzeko. MATER-ek, itsas kontserbazioaren aldeko borrokan gero eta tripulazio handiagoarekin batera, gure inguruko aberastasun naturala ezagutzera gonbidatzen zaitu.

Jaizkibel-Uliako itsas biodibertsitatera hurbiltzeko gida txiki hau aurkezten dizugu, ikus daitezkeen espezie ohikoenen, ikusgarrien eta garrantzitsuenen lagin bat jasotzen duena. Tresna txiki bat, ingurune hau baloratzen hasi eta haren kontserbazioaren protagonista izaten lagunduko diguna.

SARRERA.

Jaizkibel-Uliako itsasertza benetako harribitxia da paisaiari, geologiari eta naturari dagokienez. Naturaren maisulan bat, Natura 2000 Sareak babestua bere lur-eremuan; laster babes hori bere itsas eremura zabaltzea espero dugu.

Euskal Herriko itsasertzean eta kontinentean hobekien kontserbatutako itsas ekosistemetako batean gaude. Krustazeo-, arrain-, ekinodermo- eta alga-espezie asko bizi dira bertan. Beste batzuk, izurde arrunten eta handien familiak adibidez, maiz joaten dira, aterpe eta janari bila.

Kostaldeko labarretan, zenbait landarek, hala nola itsas mihiluak lehenengo metroetan, edo *Armeria euscadiensis* endemismoak goiko zonetan, egokitu egin behar izan dute eboluzio-prozesuan zehar, haize-, gazitasun- eta malda-baldintza gogorretara.

Faunari dagokionez, itsasertz hori leku estrategikoa da itsasoko hegaztientzat, haien kilometrotako migrazioetan; bertan ubarroiak edo araoak daude, baita Kantauriko itsasertzeko kaio hankahoriaren kolonia handienetako bat ere.

Geologiari dagokionez, inguru honek berezitasun morfologiko paregabea du, hareharrizko pseudokarsten eskultura-geoforma bitxiak ondoz. Geodibertsitate eta biodibertsitate ikusgarria ageri da flysch hareharri turbiditiko delakoaren geruzen artean. Zentzumenentzako benetako gozamina.

PRÓLOGO.

La vida no es posible sin los océanos. Su temperatura, química, corrientes y vida mueven sistemas que hacen que la Tierra sea habitable para la humanidad.

La biodiversidad marina conforma uno de los grandes tesoros que hacen posible este milagro y es imprescindible su conocimiento para poder respetarlo como se merece. MATER, junto a su creciente tripulación en la lucha por la conservación marina, te invita a descubrir la riqueza natural de nuestro entorno.

Te presentamos esta mini guía para acercarte a la biodiversidad marina de Jaizkibel-Ulía. Una muestra de las especies más habituales, visibles e importantes que se pueden observar a nivel usuario. Una pequeña herramienta que esperamos sirva para empezar a valorar este entorno y que nos ayude a ser protagonistas de su conservación.



INTRODUCCIÓN.

El litoral de Jaizkibel-Ulía es una auténtica joya a nivel paisajístico, geológico y natural. Una obra maestra de la naturaleza protegida, sólo en parte, por la figura Red Natura 2000 en su zona terrestre y que esperamos, pronto sea ampliada a su zona marina.

Nos encontramos en uno de los ecosistemas marinos mejor conservados del litoral vasco y del continente. Muchas especies de crustáceos, peces, equinodermos y algas lo pueblan. Otras lo frecuentan buscando cobijo y alimento como familias de delfines mulares y delfines comunes.

En los acantilados costeros las plantas como el hinojo marino, en los primeros metros, o el endemismo *Armeria euscadiensis*, en las zonas altas, han tenido que adaptarse a lo largo del proceso evolutivo a las duras condiciones de viento, salinidad y pendiente.

En cuanto a la fauna, este litoral forma un lugar estratégico para las aves marinas en sus kilométricas migraciones albergando cormoranes o araos, así como una de las mayores colonias de gaviota patiamarilla del litoral cantábrico.

A nivel geológico este entorno alberga una peculiaridad morfológica sin igual debido a las extravagantes geformas escultóricas de pseudokarst en arenisca. Una espectacular geodiversidad y biodiversidad se presenta entre los estratos del denominado flysch arenoso turbidítico. Toda una delicia para los sentidos.

HEGAZTIAK / AVES



Kaio hankahoria
Gaviota patiamarilla
Larus michahellis



Kaio iluna
Gaviota sombría
Larus fuscus

Zanga
Alcatraz
Morus bassanus




Ubarroi handia
Cormorán grande
Phalacrocorax carbo



Ubarroi mottoduna
Cormorán moñudo
Phalacrocorax aristotelis



Sai arrea
Buitre leonado
Gyps fulvus



Sai zuria
Alimoche
Neophron percnopterus



Martin arrantzalea
Martín pescador
Alcedo atthis



Antxeta mokogorria
Gaviota reidora
Chroicocephalus ridibundus



Martin arrunta
Arao común
Uria aalge




Kulixka txikia
Andarrios chico
Actitis hypoleucos

ARRAINAK / PECES



Korrokoa
Corcón
Mugil cephalus



Txitxarroa
Chicharro
Trachurus trachurus



Buztanbeltza
Oblada
Oblada melanura



Muxarra
Mojarra
Diplodus vulgaris



Lupia
Lubina
Dicentrarchus labrax



Kabuxa
Moma
Parablennius pilicornis



Abixoia
Abichón
Atherina hepsetus

ITSAS UGAZTUNAK / MAMÍFEROS MARINOS


Izurde arrunta
Delfín común
Delphinus delphis



Izurde handia
Delfín mular
Tursiops truncatus



EKINODERMOAK / EQUINODERMOS



Itsas trikua
Erizo morado
Paracentrotus lividus



Itsas izarra
Estrella de mar común
Marthasterias glacialis

KNIDARIOAK / CNIDARIOS



Itsas tomatea
Tomate de mar
Actinia equina

Anemona arrunta
Anémóna común
Anemonia sulcata




MOLUSKOAK / MOLUSCOS



Muskuilua
Mejillón
Mytilus galloprovincialis




Ostra
Ostra
Crassostrea gigas



Lapa
Lapa
Patella sp.



Maulioa
Peonza
Monodonta lineata



Karrakela arrunta
Bígaro común
Littorina littorea



Olagarroa
Pulpo
Octopus vulgaris

KRUSTAZEOK / CRUSTÁCEOS



Eskarra

Cangrejo moruno

Eriphia verrucosa



Izkira

Quisquilla

Palaemon elegans

Karramarro beltza

Cangrejo corredor

Pachygrapsus marmoratus




Balanoa/Itsas ezkurra

Bellota de mar

Balanus perforatus

Kopepodoak (Zooplanktona)

Copépodos (Zooplancton)



Lanperna

Percebe

Pollicipes pollicipes




Ermitaua

Cangrejo ermitaño

Diogenes pugilator

ALGAK / ALGAS



Itsas uraza
Lechuga de mar
Ulva sp.




Fucus sp.



Alga kareduna
Alga calcárea
Lithophyllum incrustans




Codium sp.




Cystoseira tamariscifolia



Gelidium corneum



Diatomeak (Fitoplanktona)
Diatomeas (Fitoplancton)



LURREKO FLORA / FLORA TERRESTRE



Itsas pinua
Pino marítimo
Pinus pinaster

Ametza
Roble melojo
Quercus pyrenaica



Itsas krabelina
Clavel marino
Armeria euskadiensis



Itsas xardin-belarra
Helecho marino
Asplenium marinum



Txilar burusoila
Brezo común
Erica vagans



Itsas plantaina
Llantén de mar
Plantago maritima



Itsas mihilua
Hinojo marino
Crithmum maritimum



www.mater.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITZAKIN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



www.mater.eus/eskerrak